

# 2015eko OTSAILAREN 16ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

2015eko otsailaren 16an, herriko Kontseilua herriko etxean bildu zen 20:00tan, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : Vincent Bru auzapez jauna, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Henri Saint Jean jauna, axuantak ; Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despèries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin jauna, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorriak : Frédéric Bardin jauna, Eliane Aizpuru anderea, axuantak, Pascal Bourguet jauna, herriko kontseilari.

Ahalordez : Frédéric Bardin jaunak Jean-Noël Magis jaunari, Eliane Aizpuru andereak Didier Irastorza jaunari, Pascal Bourguet jaunak Pascale Lespade andereari.

## **1 – Bilkuraren idazkariaren izendapena.**

**Aho batez** bozkaturik, hor ziren kideek Argitxu Hirigoyen hautatzen dute idazkari gisa.

## **2 – Azken bilkuraren jakinarazte-aktaren onartzea .**

Kontseiluko kideek 2015eko urtarrilaren 5ean iragan azken bilkuraren jakinarazte-aktari buruzko oharrak egin nahi dituztenez galdegiten du auzapez jaunak. Oharrak ez denez egiten, azken bilkuraren jakinarazte-akta aho batez onartzen da.

## **3 – 2015eko aurrekontu orientazioak.**

3 500 biztanle baino gehiagoko herrietan, kontseilu deliberatzaileak aurrekontu orientazio orokorreari buruzko eztabaida eramaten duela oroitarazten du auzapezak, jatorrizko aurrekontuaren azterketa baino bi hilabete lehenagoko epe batean. Azken horren bozka apirila erditsuan izanez gero, bi hilabeteko epe hau errespetatua da, lurralde elkargoen kode orokorraren arabera.

Eztabaida honen haritik, finantzen axuanta den Devèze jaunak eta zerbitzuen zuzendari nagusiak herriaren finantza egoera aurkeztuko dutela zehazten du auzapezak. Bozkarik ez da izanen, baina erabaki bat hartuko da eztabaida buruan hartzeko eta prefetak berak legea errespetatzen dela segurta dezan.

Devèze jaunak dio aurrekontu bereziek eragin handirik ez dutenez, elkargoaren finantza egoera oroitaraziko duela aurrekontu orokorraren heinean. Azken hiru urteen administrazio kontuen garapena aurkeztu du, kontseilari bakoitzari eman administrazio kontuei buruzko dokumentuak 2011koak badira ere. Inbertsio proiektuak diruztatzeko aurrezki nahikoa erakusten du

funtzionamenduak. Kontu operazioak kontuan hartu gabe, funtzionamenduaren zein diruzaintza operazioen sartze errealak ez dira garatzen, 6 milioi eurora hurbiltzen direlarik. Sail honen gastuak erregularri igotzen dira aldiz. Hala ere, irabaziaz baino apalago egoten dira, 2014ean 1 126 000 €-ko kudeaketa-aurrezki batera heltzeko. Zorraren interesak (105 000 €) baita herriaren zenbatekoen kapitala ordaintzeko parada ematen du horrek. Autofinantzatzeko gaitasuna 645 000 €-koa da. 2014ean, 1 150 000 €-ko inbertsio-irabazia sartu du herriak. Horri 645 000 € gehitzen zaizkiolarik, 1 700 000 €-ko gaitasuna ematen du zoinetan ekipamendu gordinak egin diren 2 300 000 €-rentzat, 504 000 €-ko finantzamendu behar orokorra adierazten duelarik, azken jardueren gibelatzeak kontuan hartu gabe. Eraitza horiekin, 434 000 €-kosoberakina agertzen da.

Ondoren, fluxu mailako azterketa aurkeztu du finantzen axuantak, eta ekipamendu gordinaren finantzamenduari dagokionez, Estatuaren gibel egitea azpimarratzen du. Gero, gaineratekoak eta gibelatze mailako azterketa egiten du. Inbertsio-irabaziaz inbertsioen gauzatzearen araberakoak dira usu. 2014eko jarduera bukaeran, eraitza garbia 536 000 €-koa izanen da, herriak aurrekusi programak gauzatu eta diru laguntzak kobratu dituela kontsideratzen baldin bada. BEZ-ren aldaketa azpimarratzen du ere, bi urteko berantarekin eskuratua delako eta Kanboko herriarentzat %15etik gorako tasan konpentsatua delako.

Herriak jokatzeko leku ttipia duela zehazten du Devèze jaunak, eta funtzionamendu-irabazien apaltzea azpimarratzen du. Estatuaren zuzkiduren murrizketari (urte guziz 112 000 € gutiago) baita herri elkargoari eman gaitasunen eskualdaketari lotua da apaltze hau, herriak berak ez dituelarik gehiago irabaziaz kudeatzen. Oinarrien, tasen eta zergen gorakadari esker, progresio erregularra ezagutzen zuen lehen herriak. 2011tik goiti, ahalmen berezia duen herri elkargoak ditu delta baikor guziaz kobratzen. Funtzionamendu-gastuak emendatzen dira. Langile-kargak kostu sozialaren tasaren %40 baino guttiagokoak dira, beste elkargo batzuetan %50 baino gehiagora heltzen direlarik. Zorraren ordaintzaren ondotik, orain arte atxikiak ziren funtzionamendu elementuek jokatzeko leku ttipia uzten dute. Herria ezin da bere ahalmenak baino urrunago joan. Inbertsio zein gauzatze bulimia saihestu behar da. Baduguna kudeatu behar da, ondoko belaunaldiek herriak bere ahalmenetik kanpo hartu konpromiso eginezinak ez ditzaten ordain.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak beste ratioak aurkeztuko baditu ere, azterketari buruzko galderak badirenez galdegiten du auzapezak.

Aiçaguerre andereak galdegiten du kontseilariak dokumentu hauek jasotzen ahalko dituztenez.

Devèze jaunak erantzuten dio aurrekontu orientazioei buruzko eztabaida dela eta kontseilariak datu batzuk jadanik jaso dituztela. Sektorekako gastu eta irabazien azterketa aurkeztuko du zerbitzuen zuzendari nagusiak, eta hautetsiei helaraziko zaie.

Paper kontsumitze handiaren parean, auzapezak zehazten du Kontseilu orokorrean bezala, paperezkorik ez ematea erabaki dela. Kontseilariak paperezkoa nahi badute, zerbitzuen zuzendari nagusiari galdegin beharko diote. Herriak informazio sistema hau erabiltzen du paper kontsumitze handia saihesteko.

Dokumentua e-postaz igortzen ahalko dela zehazten du zerbitzuen zuzendari nagusiak.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak azken hiru urteen finantza bilduma aurkeztu du, 2014ean 300 000 €-ko funtzionamendu irabazien apaltze bat azpimarratuz. Zergek 30 000 €-ko apaltze bat erakusten dute, eta erakaspén artistikoa, lurralde kultur proiektua baita ikastolen gaitasunen eskualdaketaren haritik, Errobi herri elkargoaren ordainsari-apaltzea 71 500 €-koa da. Arnagako sartze eskasak 77 000 €-ko apaltzea erakusten du, bku aldaketari dagokion zerga gehigarriarentzat

-73 000 €, egonaldi zergarentzat -55 000 € eta funtzionamendu zuzkidura globalarentzat -44 000 € (2014ean). Eskola garraioen gastuei dagokien Departamenduaren parte hartzearen gorakadaz ohartu behar da. Alabaina, 2014ean, 2014-2015eko ikasturte osoa ordaindu du Departamenduak. Haurtzaindegiko lekuen kopuruaren emendatzearen ondotik, Familia Laguntza Kutxaren parte hartzea ere emendatu da.

Herriaren eta geruza berdineko herrien funtzionamendu irabazi errealen konparaketa aurkezten da.

Zergalaritza egonkorra da. erakaspén artistikoari dagokion gaitasunen eskualdaketaren ondotik, Errobi herri elkargoaren diru-itzultzea 1 059 997 €-tik (2013an) 987 936 €-ra pasatu da (2014ean). Hiru zergen tasak geruza berdineko herrien tasekin konparatzen dira. Errobi herri elkargoak zerga profesionalaren tasa finkatzen du.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du « geruza » terminoak « baliokide » erran nahi duenez.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzuten dio geruza demografikoak direla, Frantzia mailan 10 000 biztanle baino guttiagokoak. Tokiko elkargoen Zuzendaritza orokorrak komunikatzen ditu datu horiek, urte guziz.

Kontseilu orokorrean bezala, zenbaki adierazle interesgarriak direla ohartarazten du auzapezak. Hein bereko herriekin konparatzea beti interesgarria da. Herriaren esku diren hiru zergen egoera ikus daiteke (bizitegi zerga, etxeekilako eta etxerik gabeko lur-zerga).

Zerbitzuen zuzendari nagusiak jakinarazten du mota orokorreko funtzionamendu gastuak egonkorrak direla. 28,4-ko tasa agertzen da, hein bereko herrientzat 25,7-koa delarik. Langile-kargek 43,2-ko tasa erakusten dute, geruza demografiko berdineko herrientzat 49,8-koa delarik, kudeaketa arrunteko kargak : 26,3-koa besteetan 21,2 delarik, interes-karga : 2-koa, 3,3-ren kontra.

LSHZ-ren kuadroan, Devèze jaunak ohartarazten du gorakada jaso duten beste kudeaketa karga orokorretan, 935 000 €-tik 1 057 000 €-ra paatu girela. Herriaren indar gordinaren eragin handia erakusten du horrek, LSHZ-rendako diru laguntza 511 225 €-tik (2013an) 620 500 €-ra (2014ean) pasatu baita. Familia Laguntza Kutxak eman diru laguntza kontuan hartzen bada ere, progresio garbia handia da.

Interes-kargei dagokienez, zuzendari nagusiak zehazten du 2013an bost mailegu gelditu direla, eta horrek interesen zenbatekoaren apaltze bat ekarri duela.

Inbertsio irabaziaz BEZKF eta tokiko ekipamendu zergaz osatuak dira.

Auzapezak zehazten du azken bi urteetan gauzatu inbertsioetan, BEZKF-a (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Konpentsatze Fondona) Estatuak diruztatu zatiaren arabera dela.

Devèze jaunak zehazten du %15,5eko tasa dela, hots azken bi urteetan gauzatu inbertsioen zenbatekoari dagokion batez besteko tasa.

Inbertsio gastuen kuadroan, bi maileguen ordaintze aitzinatua azpimarratzeko da (500 000 € eta 195 000 €), maileguen kapitalaren ordaintzea 1105 025 €-tik (2013an) 376 833 €-ra (2014ean) pasatzen da orduan.

2012an gauzatu inbertsioak 2 592 806 €-koak ziren, 2013an 1 568 308 €-koak eta 2014ean 2 300 731 €-koak, hots 1 880 827 €-ko batez bestekoa dugu.

Devèze jaunak ohartarazten du milioi bateko aurrezkoa bada ere, beste milioi bat atxeman behar dela 1 880 000 €-ko inbertsioak gauzatzeko. Herriak ezin badu inbertsio diru laguntzarik ukan, zaila egingen zaio orduan proiektu anbiziotsuak diruztatzea, salbu dirua mailegatzen badute.

Ondoren, zerbitzuen zuzendari nagusiak bost posturen egoera analitikoa aurkezten du : Arnaga, mediateka, LSHZ-ko igerilekua, turismo bulegoa eta musika eskola.

Arnagari dagokionez, 2013 eta 2014 arteko funtzionamendu irabaziak apaldu dira sartze eskasagatik (- 12 000 sartze). Eraikinen baita lorategiaren hobetzeko lanak segitzen dira, Estatuak, Eskualdeko kontseiluak eta Kontseilu orokorrak lanen %80a diruztatzen dutelarik.

Etchelecu jaunak ohartarazten du 2013. urtean izan ezik, funtzionamendua galtzetan ari dela.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak 2014eko defizit handia azpimarratzen du. 2013an sartze kopuruaren emendatzeak irabazi handiagoa ekarri zuen, baina 2014ean gelditu zen (2014eko uztaileko uholdeen ondorioz). Irabazi guzien %85 inguru osatzen dute sartzeek. Dendaren irabaziak ere apaldu ziren 2014ean.

Bacardatz jaunak galdegiten du zergatik erosketak egiten diren dendako salmentak apaltzen badira.

Erantzuten dio erreserbak direla.

Devèze jaunak zehazten du erosketak ez direla aldatzen, eta erreserbak zainduz kasu egin behar litzatekeela. Erreserba kudeaketarik ez da. Joan den urtean, gastuen eta irabazien arteko oreka batera iritsi ginen, duela zenbait urte Arnagan egin inbertsio adierazgarrirei esker.

Aïçaguerre andereak ekainaren 30eko egoeraz galdegiten du.

Pontacq andereak erantzuten dio sasoi hastapena 2013an baino txarragoa izan dela.

Auzapezak zehazten du iraila, urria eta azaroko hilabeteek sasoi hastapena konpentsatzen dutela normalean, baina 2014ean ez dela hala izan.

Langile-kargak bereziki kontuan harturik, herriari kostatzen zaion zerbitzu bat da mediateka.

Igerilekua ere galtzetan ari da. 2013an baino sartze gutiago izan da 2014ean. 2013an gastuen emendatze bat ere azpimarratzekoa da, mantentze gastuengatik (irazki aldaketa).

Lespade andereak ohartarazten du 2014ean aro txarragoa izan dela.

LSHZ-ri dagokionez, 2014eko diru laguntza 620 500 €koa zen. FLK-k 133 620 € eman ditu, eta herriak bere gain hartu gastuak kontuan hartzen baditugu, pagatu beharreko garbia 488 501 €-koa da. Ohartarazi behar da herriak zuzenki ordaindu gastuak ttipitu direla, LSHZ-k bere gain hartu baititu.

Auzapezak ohartarazten du herriaren parte hartzea 218 617 €-tik (2008an) 488 500 €-ra (2014ean) pasatu dela. LSHZ-ri zuzendu herriaren parte hartzea handia da eta emendatzen doa, pobretze egoerak edota laguntza eskaeragatik justifikatzen delarik...

Devèze jaunak azpimarratzen du herriak pagatu beharrekoa 181 047 €-tik (2011an) 486 774 €-ra (2014an) pasatzen dela, hots bi aldiz gehiago. FLK-k ez du pobretze hau kontuan hartzen, eta soilik %10ez emendatu da (116 133 € 2008an eta 133726 € 2014ean), herriaren kargu den portzentajea berdina da orduan, hots bi aldiz gehiago.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du LSHZ-ri zuzendu herriaren diru laguntza zertarako den, langileen enplegatzeen tapatzeko emana ote den.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzuten dio zerbitzuek (apairuak, etxeko laguntzaileak...) eta haurtzaindegiko leku kopuruaren emendatzeak eragin dutela langileen enplegatzean. Elkargo guzietan, langile-kargak dira zati garrantzitsuena osatzen dutenak. 2003/2004ean, 30 lekutik 35era pasatu gira haurtzaindegian. 2009an, haurtzaindegia hedatu da eta 2010ean, 4 leku berri sortu dira. 2011tik 2013ra, haurtzaindegiko leku kopurua 39tik 45era pasatu da. Segurtasun arauak errespetatzeko, langileak enplegatu behar izan dira.

Hiriart-Urruty andereak dio herri elkargoak haur ttipien gaitasuna bere gain hartu behar duela, eta horrek gauzak aldatuko dituela.

Auzapezak zehazten du herri elkargoari gaitasun bat emana zaiolarik, azken honek hein bereko dirua kentzen diola herriari. Hau CLECT-aren bidez egiten da, eskualdaketa kargak aztertzen dituen batzordea. Herriari 100 € kostatzen zaizkion gaitasun bat aldarazten bada, elkargoak 100 € atxikiko ditu zerga ekonomikoetan zor zaigunaren gainean, hots aitzineko zerga profesionala. Etorkizunean, emendatuko den delta herri elkargoaren gain izatean datza herriaren interesa. Bestalde, herri elkargoak eman irabaziak ez dira indexatuak; zerga ekonomikoak eskualdaketa baino lehenagotik ekartzen zuenaren arabera dira, hots ez da garapen aukerarik. Devèze jaunak erran duen bezala, oinarrien gorakadarekin baita irabazi gehiagoren ukateko tasen aldaketarekin, herriaren zerga ekonomikoak urte guziz emendatzen ziren. Ez da gehiago hala orain, herri elkargoak eskualdaketa baino urte bat lehenagokoaren arabera diru zama bera ematen baitu. Herri elkargoari eman haurtzaindegiaren gaitasunak aurrekontua arinduko du agian, baina eskualdaketa eginen delarik, haurtzaindegirako gastuen zati bat atxikiko du herri elkargoak.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak jakinarazten du herri elkargoak itzuli laguntza konpentsatzaileak 1 059 997 €-tik 987 000 €-ra pasatu direla, erakaspén artistikoaren gaitasunaren eskualdaketaz gerotik. Haurtzaindegia herriarteari emana bazaio, herri elkargoak haurtzaindegirako kargaren kostutik 980 000 €-ko zama murriztuko du.

Michelena jaunak galdegiten du 2015eko eskolaldi inguruko denboraren aurrekontua (TAP) 2014ekoaren arabera denez.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak baietz erantzuten dio, adierazgarri ez den zenbateko batentzat. LSHZ-k ditu fakturak pagatzen eta ondotik herriak ordaintzen dizkio. 2015ean, 2014/2015 ikasturteko gastu guztiak kasik eskuratuko ditu LSHZ-k.

Devèze jaunak jakinarazten du diruzaintza bateragarritasun batean gaudela, eta horregatik desorekak edo aldaketak direla, funtzionamendu mailan ez baita gaineratekorik gauzatzeko.

Dor jaunak dio nahasdura sor dezakeela horrek, eta galdegiten du 620 000 € horiek (herriaren diru laguntza) LSHZ-ren aurrekontua osatzen dutenez.

Devèze jaunak ezetz erantzuten dio.

Dor jaunak zehazten du hori agerian utzi nahi zuela, eta uste du interesgarria litzatekeela lanpostu handiak (pertsonek laguntzaileak, haurtzaindegia...) eta aurrekontu globalaren mailako 620 000 € horiek zer diren ikustea, konparatzea, informazioa murriztua iduritzen bait zaio.

Devèze jaunak erantzuten dio 620 000 € horiek aurrekontuaren zati garrantzitsu bat osatzen dutela. Familiek parte hartzen dute baina bilkura hau aurrekontu orientazioei eta zerbitzuen araberrako herri-engaiamenduei zuzentzen zaie.

Do jaunak dio interesgarria dela herriaren indarra familienaren hein berekoa denez ikustea.

Pérez jaunak erraten du LSHZ-ren aurrekontuari buruzko xehetasun gehiago ematen ahalko direla administrazio kontuaren bozkan.

Michelena jaunak dio LSHZ-ren aurrekontua 1,3 milioi euro ingurukoa dela, eta herriaren diru laguntzak aurrekontuaren %50a osatzen duela guti gorabehera.

Turismo bulegoari dagokionez, 2014ean herriak eman diru laguntza 176 206 €-koa da. Egonaldi zerga 165 000 €-tik (2013an) 111 000 €-ra (2014ean) pasatu da. Funtzionamendu balantza negatiboa da (- 90 959,61 €). 2014ean lanpostu erdibat sortu da.

Musika eskolari dagokionez, nahiz eta gaitasuna 2013an transferitua eta 2014ean aplikatua izan, Daniel Hérard-en lansariak herriaren gain egoten dira, erakaspén artistikoaren kuadroan herri elkargoak ordainduko dituelarik..

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du Daniel Hérard beti soldatadun denez.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak baietz erantzuten dio. Gaitasun horren eskualdaketak 2 kontraturen beharra ekarri duela zehazten du : lehena Musikas-ek eginik erakaspén artistikoarentzat, eta bigarrena herriarendako bete behar duen animazio partearentzat (zuzenbide publiko mailan lan kontratu mugatuari lotu 12 oreneko kontratu gehigarria). Bi kontratu horientzat Daniel Hérard-en adostasunik ez dugunez, herriak dio lansari osoa ematen ; abantzu bat da gaitasuna 2014eko irailaren 1etik goiti transferitua izan baita.

Ondoren, aurrezki gordina, garbia, funtzionamendu-irabazi errealean araberrako zorraren urte saria, zorraren ttipitzeko gaitasuna, herriaren zor globala eta biztanlekako zorrari buruzko ratioak aurkezten dira.

Auzapezak galdegiten du heldu den urterako aurkezpen landuago bat izatea, grafiko gehiagorekin, gastuen sailkapen argiak eta dokumentu irakurgarriagoak ukateko.

Auzapezak dio herriaren finantza egoera sana dela baina geroz eta tinkiagoa ere, eskualdeko zein departamenduko beste elkargoetan bezala. Gaur egun, Estatuaren zozkiduren apaltzea eta zergen emendatzeko zailtasunaren parean, perspektibak ez dira atsegingarri. Kargualdi horrentzat, auzapezak ez du inbertsio handirik egin nahi. Arlo anitzetan ekipatua izan da hiria.

Aurrekontu orientazioei buruzko eztabaida honetan, bi informazio gehitu nahi ditu auzapezak. Alde batetik, tokiko hiru zergen tasa ez du emendatu nahi, ez lukeelako ekarpen adierazgarririk eginen. Uztaileko uholdeengatik sufritu dutenei mezu bat pasarazi nahi die. Inguruko herri batzuk hunkituak izan dira, artisauak ere bai. Gertakari horiek pairatu ditu hiriak, sufrimendu morala eta arrangura. Horregatik erabaki da 2015erako zergen tasa ez emendatzea. Frantziako herri guzietan atxematen den aurrekontu behartuen parean, 2015erako inbertsioak aurkezten ditu auzapezak :

- Hiria, Txikito eta Bota karriken edertzearen gainerakoa, 33 000 €-rentzat,
- Arnagako arkitektura eta paisaia antolaketa (Pergola handiaren berritzea) ; horrentzat Estatutik %40eko laguntza du herriak, beste %40 Eskualde eta Departamendutik,
- Txikito karrikan sare lurperatze lanak 16 500 €-rentzat,
- Hartzaindegiko patioaren estaltzea haurrendako harrera gune bat eraikitzeko, 90 000 €-rentzat,
- Herriko eraikinen berritze lanak eta isolamendu termikoa (ama eskola), lurraldeko kontratuan idatzi operazioak, 210 000 €-rentzat 2015 eta 2016ko urtaldietan,
- Tenis zelai baten estaltze lanak urte bukaeran,
- Karabana gune baten antolaketa, Kontseilu orokorarekin izenpetu lurraldeko kontratua idatzia,
- Estadioko 2. zelaian ureztatze sistema automatikoaren konpontzea,
- Uztailako gertakariengatik hunkituak izan diren komertsanteek galdeginik, « Hiriko bihotza » operazioa gelditua da eta horren kredituak bide konpontze lanentzat erabiliko dira. Jean-Noël Magis eskertzen du hurbiletik segitzen baititu konpontze lan horiek. Milioi bat euro ezarriko da lan horientzat : Etxettoa auzoa jadanik egina, 7 haitzen bidea, Souberbielle auzoa, Iguzkian, et auzapezak hitz emanik, hauteskunde kanpaina denboran galdegin lan garrantzitsuak,
- Sorhainde plazaren berritzea,
- Lanak herriko eraikinetan,
- Burasoek galdeginik, St Joseph parkearen jostalekuaren hedatzea, joko berri batzuekin,
- Arnagarendako eskuratzeak,
- Hiri-altzarien erostea,
- Informazio panel elektronikoak,
- Kanbo Behereko « Courant d'Air » etxearen eskuratzea, akta izenpetua,
- Ikerketa gastuak HTP-aren berrikuste orokorarentzat. Auzapezak dio gaur bilkura bat izan dela Estatuaren, LKE-ren (Lurralde Koherentzia Eskema), Errobiko sindikatuaren ordezkarien baita HTP eta Arkitektura eta Ondarea Baloratzeko Guneko (AVAP) obralarien artean.
- Postu informatiko baten eskuratzea.

Auzapezak zehazten du inbertsio batzuk bi urtetan finantzatu direla : 2015 eta 2016an. Aurrekontu behartu honetan, bide mailan sekulan eraman ez den indar bat egiten da hemen. Hartzaindegiaren proiektua bezalako beste operazio garrantzitsuak direla zehazten du ere, herritarren beharrei erantzunen dutelakoan. Agiantza zeremonian erran zuen bezala, ekipamendu edo egituratze pisuak ez dira abiatu behar. Gaurko ekipamenduak nahiko dira 6 000 biztanleko herri batentzat, baina hobetu behar dira hala ere.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du %80eko laguntzak kenduz, Arnagako arkitektura eta paisaia antolaketak zenbat kostatuko duen.

Auzapezak erantzuten dio antolaketaren kostua 300 000 € ingurukoa izanen dela, %80eko laguntzarekin 60 000 € hartuko ditu bere gain herrak.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du karabana gunearen antolaketaren urteko aurrekontua zenbatekoa den.

Auzapezak dio 34 000 €-ko kreditu bat aurreikusia dela urte honentzat, eta 2016erako 290 000 €, hots 320 000 € (zergak barne) egiten durotara. Gune horren kokapena ez dela oraindik erabakia zehazten du, baina inbertsio beharrezkoa dela hiri termal eta turistiko batentzat, herriak eskakizun horri erantzun behar duelarik. Duela guti bilkura tekniko bat izan da, eta zerbitzu publiko

batzuek anitz kostatzen dutelarik, herriari baikorki ekarriko lioke gune horrek. Hala ere, halako egitura bat gauzatzen delarik, inbertsioen ekarria nahiko garrantzitsua da.

Beste galderak badirenez galdegiten du auzapezak.

Beste galderarik ez denez, eztabaida hetsia dela dio auzapezak. Ez da oraindik bozkarik izan, baina aurrekontu orientazioei buruzko eztabaida izan dela kontuan hartu behar du Herriko Kontseiluak.

#### **4 – AOBG (AVAP) : diru laguntza eskaera.**

Frédéric Bardin hirigintzako axuanta eri denez, auzapezak du txostena aurkezten.

AHPOBG (Arkitektura, Hiri eta Paisaia Ondarea Babesteko Gunea / ZPPAUP) ordezkatu duen AOBG baten gauzatzeko diru laguntza eskaera da (Arkitektura eta Ondarea Baloratzeko Gunea). Hau da berrituko den HTP-ren elementu gehigarria. Alabaina, bere historia dela eta, ezohiko etxeekilako ondare naturala du herriak. Bainuetxeari esker, 1. kategoriako hiri eta paisaieran sartu da herria, eta ondoko belaunaldiei transmititu nahi die bere ondarea. Herria lorategi-hiria, parke-hiria da, bere etxe neoeuskaldunekin baita 19 edo 20. mendeko arkitekturarekin. Horregatik Akitaniako Kultura Aferen Eskualdeko Zuzendaritzak (DRAC) aholkatu zuen HTP-ari AOBG bat gehitzea.

Horren haritik, 2014eko uztailaren 21ean hartu deliberazioaren bidez, AOBG baten sortzeko ikerketa bat abiatu du herriak (Vanel-Duluc andereak segitua), AOBG tokiko batzorde bat sortzea erabaki du eta kideak ere izendatu ditu.

Ikerketaren kostua 73 840 €-koa da (zergarik gabe), hots 88 608 € (zergak barne).

Akitaniako Kultura Aferen Eskualdeko Zuzendaritzak %50eko diru laguntza eman dezake.

Auzapezak herriko Kontseilua gonbidatzen du AKAEZ-aren %50eko laguntza hau eskatzera.

Aho batez onartua.

#### **5 – Kirol ekipamenduen eraikitzeako ikerketa geoteknikoak : ikerketa bulegoaren izendapena.**

Didier Irastorza axuantak ondoko txostena aurkezten du :

Michel Labéguerie estadiotik hurbil lirakeen hiru kirol ekipamenduren sortzearen kuadroan (tenis zelaiaren estaltzea, kirolgunea, skateparkea), lur ikerketa bat ereman behar da aurreikusi guneetan.

Ikerketa bulego baten izendapenari egokitu merkatu baten araberako kontsulta bat abiatu da. Gutunen itzultzeko azken epea : 2015eko urtarrilaren 5ean, eguerditan.

Hiru dossier izan dira : Ginger ikerketa bulegoa, ECR Environnement eta Fondasol.

Bi erantzun kontuan hartu dira : ECR Environnement eta Fondasol. Ginger bulegoak ez du proposamenik igorri.



Batzordea 2015eko urtarrilaren 8an bildu da 14:30tan gutunen idekitzeko. Proposamenak hauek dira :

ECR Environnement : 11 826 € (BEZa barne), hots 9 855 € (zergarik gabe)

FONDASOL : 10 230 € (BEZa barne), hots 8 525 € (zergarik gabe).

Fondasol ikerketa bulegoko Legros jaunarekin guneak bisitatu ondoren, zundaketen kokapena ahal bezain ongi finkatzeko gisan, penetro dinamikoari 4 saiakuntza gehitzea erabaki da, estaltzekoak diren tenis zelaiak ez baitira oraindik finkatuak. Horrela, FONDASOL-en aurrekontua 11 046 €-tan da (BEZa barne), hots 9 205 €-tan (zergarik gabe).

Auzapezak herriko Kontseilua gonbidatzen du FONDASOL ikerketa bulegoarekin obren hitzarmena izenpetzeko baimena ematera, 11 046 €-rentzat (BEZa barne), hots 9 205 €-rentzat (zergarik gabe).

Aho batez onartua.

## **6 – Haurtzaindegia – patio lanak harrera gune bat egituratzeko : obralariaren izendapena.**

Henri Saint Jean mediku axuant delegatuak aurkezten du :

Haurtzaindegiko patioaren aldatzeko lanak 2015eko bigarren urte erdian egin beharko dira. Bizitokia handitzeko nahian, patioa aldatuko eta haurrendako harrera gune bat egingen da. Horren haritik, ikerketa bulegoaren izendapenari egokitu merkatu baten araberrako kontsulta bat abiatu da 2014eko abenduaren 17tik goiti.

Lanen aurrekontua 65 000 eurotan estimatua da guti gorabehera (zergarik gabe).

Herriak gutun bat jaso du. 2015eko urtarrilaren 8ko bilkuran idekia izan da, 14:30tan. Eliane MENDIBOURE andere arkitektoaren proposamena da, 8 450 €-rentzat (zergarik gabe), hots lanen estimatzearen %13ko tasa.

Gauzatzeko epea 8 hilabetekoa da.

Auzapezak ohartarazten du gehienetan, herriak arkitektoekin lan egiten duelarik, ordainsari tasa %13 baino guttiagokoa dela. Baina hau ez da kiroldegi bat eraikitzea baizik eta 80 000 €-ko operazioa. Lanen prezioari egokitu behar da tasa. Operazioa maila handiagokoa balitz, tasen negoziazio bat eskatuko zen.

Etchelecu jaunak azpimarratzen du merkatua ez dela prezio baten gainean egiten baizik eta tasa baten gainean.

Auzapezak erantzuten dio ordainsaria tasa baten gainean karkulatua dela, eta lan gehigarriak saihestu behar direla orduan, tasari aplikatuko zaion oinarria ez emendatzeko.

Auzapezak bozkara pasatzea proposatzen du.

Aho batez, auzapezari Eliane Mendiboure anderearekin tratua izenpetzeko baimena ematen dio Herriko Kontseiluak.

## **7 – PAES-k proposatu elektrizitate tratua rendako kandidatura.**

Vincent Goytino herriko kontseilari delegatuak oroitarazten du joan den urtean, PAES herriarekin harremanetan sartu zela energien salmentarendako prezio arautuak -eta lehenik gasarentzat-bururatu zirela jakinarazteko. PAES-k (Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua) erosketa-talde batean kidetzea proposatu zuen, gasaren erosteko prezio erakargarriago baten ukateko. Joan den urtean, kontsulta horretan parte hartzea erabaki zuen herriak, eta lehen zeuden prezioak baino %15 guttiagotan lortu ziren gasaren prezioak.

2016eko urtarrilaren 1etik goiti prezio arautuak desagertuko direnez, herriari kontsulta batean parte hartzea proposatzen dio PAES-ak orai, elektrizitatea erosteko prezio erakargarriago batean ukateko gisan.

Herriko Kontseilua gonbidatua da auzapezari PAES-ak proposatu elektrizitate merkatura bere kandidatura aurkezteko baimena ematera.

Bacardatz jaunak oroitarazten du joan den ekaineko deliberazioan, Kontseiluak bere ordezkariak eman ziola PAES-ri gasaren prezioa negoziatzeko. 2015eko urtarrilaren 1etik negoziatu omen dira prezioak, baina ez da zenbatekorik erabaki, ez eta ere operadorerik. Herriko Kontseiluari berriz eskatuko zitzaioala erran zen.

Goytino jaunak zehazten du PAES-ak erran zuela negoziaketan ondotik, herriek erbakitze eskubidea atxikiko zutela. Interasgarria iduritzen zaion %15eko beherapena lortu du sindikatuak.

Bacardatz jaunak dio : « baina kontratuak izenpetuak izan dira jadanik ».

Goytino jaunak erantzuten dio ez duela uste hala denik.

Bacardatz jaunak dio prezioen bukaera 2015eko urtarrilaren 1ean finkatua izan bada, herriak ez duela gehiago gas kontraturik.

Goytino jaunak dio kontratuak izenpetu direla agian, PAES-ak zehaztu behar duela.

Energia kontsumoaren araberako karkulua denez, funtzionamenduari begira herriaren parte hartzea jakina denez galdegiten du Bacardatz jaunak.

Goytino jaunak erantzuten dio gasari dagokionez, %2 ingurukoa dela parte hartzea, eta elektrizitatearentzat tasa berdina izanen dela segur aski.

Bacardatz jaunak ohartarazten du zenbatekoa ez dela ezaguna. Zerk frogatzen du PAES-ari ordaindu funtzionamendua baino diru gehiago irabaziko duela herriak ?

Goytino jaunak erantzuten du negoziaketaren denboran ikusiko dela. PAES-ak hunkituko duena ongi zaindu beharko da erabaki ona hartzeko, hots PAES-ari kidetzea edo elektrizitate hornitzaile batekin negoziaketa segitzea.

Bacardatz jaunak dio herriko Kontseiluari berriz eskatuko zaiola orduan, kontratuak izenpetu aitzin. Deliberazioaren proiektuan, herriko Kontseiluak dio tratuak eta hitzarmenak izenpetzeko baimena ematen auzapezari, harek du orduan PAES-ari izenpetzeko baimena ematen ere herriarendako.

Goytino jaunak zehazten du negoziaketa baizik ez dela, eta herriak negoziaketa onartzeko edo errefusatzeko ahalmena duela.

Bacardatz jaunak galdegiten du herriak operadorea hautatzeko ahalmena ere ukanen duenez.

Goytino jaunak ezetz erantzuten du, herriak negoziaketa onartu ondoren PAES-ak hautatzen duelako operadorea.

Bacardatz jaunak galdegiten du gas operadorea GDF denez.

Goytino jaunak GRDF dela erantzuten dio.

Bacardatz jaunak ohartarazten du funtzionamendu gastuak karkulatzeko, herriaren energia kontsumoa ezagutzea interesgarria litzatekeela, PAES-an karkulu bat egiten baita eta horrek duela herriaren egoera jakinarazten, hots irabazle edo galtzaile den. Herriko Kontseilua berriz kontsultatua izan behar da, gasarentzat ez da egin.

Goytino jaunak PAES-ari galdeginen duela dio.

Auzapez jaunak bozkara pasatzea proposatzen du.

Gehiengoan, herriko Kontseiluak erabakitzen du auzapezari PAES-ak proposatu elektrizitate merkatura bere kandidatura aurkezteko baimena emate dio. Abstenitu direnak : Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aiçaguerre anderea eta Michelena jauna.

Auzapezak Goytino jauna eskertzen du.

## **8 – Bordart etorbidea/Poupel karrika– eremu publikoan sartu eta sailkatu : ikerketaren abiatzea.**

Auzapezak jakinarazten du SAUVAGE jaun-andereak ados direla Bordart etorbidea eta Robert Poupel karrikaren izkineko AV 166 lursaila uzteko euro sinbolikoaren truke, Bordart etorbiderako ikuspena hobetzeko gisan.

Lursaila jadanik bidean sartzen da, egoera erregulartzea komeni da.

9 m<sup>2</sup>-ko lursail hau eremu publikoan sartzeko, ikerketa publiko bat egitea beharrezkoa da.

Operazioari buruzko iritzia ematea eta honi dagokion ikerketa publikoa abiatzeko baimena galdegiten dio auzapezak herriko Kontseiluari.

Aho batez onartua.

## **9 – Aholku-ordaina herriko biltzaileari.**

Axuant delegatua den Devèze jaunak herriko Kontseiluari proposatzen dio 1983ko abenduaren 16ko ministerioarteko erabakiaren arabera, aholku-ordain bat esleitzea kargualdi osoan herriko biltzaile gisa diharduen Diruzaintzako kontulariari. Aitzineko kargualdiek ordain hau erregulariki bozkatu dutela zehazten du, beste elkargo batzuek ez badute bozkatzeko ere. Ordaina 1 400 € ingurukoa da aurrekontu orokorra zein saneamendurako aurrekontu bereziarentzat.

Michelena jaunari bitxi iduritzen zaio 1 400 €-ko ordaina ematea soilik aholkuengatik. Ikerketak egin ondoren, ordain hau aspaldikoa dela dio. Garaian, finantza zerbitzu onik ez zuen herriak, eta pertsona eskudun baten bermea behar zen aurrekontuak balioesteko, ordain honen bozka justifikatua zen orduan. Geroztik, finantza zerbitzu eskuduna da herri guzietan, Kanbon bereziki.

Bestalde, kudeaketa Zentroak sektore honetan lagun dezake. Zergatik aholkuak biltzaileari galdegin beste nonbaitetik urririk ekartzen ahal direlarik ? Interneten bidez ohartzen gira geroz eta herri gehiagok ordain honen esleitzea errefusatzeko dutela. Aurrekontu ministrora eramana izan zen afera, eta 2011ko ekainaren 30ean ministerioak idatzi gutun batean, hautuzko ordaina dela eta herriko kontseilariak onartzeko edo errefusatzeko hautua dutela errana da. Entzun dugu aurrekontua hertsia zela, eta eskudun batekin emankorra izan behar balitz, hiriaren funtzionamendua zaintzen duten herriko langileekin hasi behar litzateke, lan ezezagun bat eramaten duen norbait ordaindu ordez.

Izan ere, Devèze jaunak dio hautuzko ordaina dela. Kontularia eta diruzainaren arteko elgar trukaketak dira. Herriak ahalmeneko zerbitzuak ditu, baina batzuetan, gastuen esleitzeaz arduratzen den diruzainarekin onarpen arazoak izaten ahal ditu.

Michelena jaunak ohartarazten du biltzaileek ordain hori jasotzen dutela herriak, herri elkargoak, erakunde publikoak eta zahar etxeengandik, aholkuak soilik emateagatik, 13, 14 edo 15. hilabete bat osatzen zaielarik.

Devèze jaunak dio biltzaileen ordaina ez dela hain gora agian.

Auzapez jaunak zehazten du inguruko elkargo guzietan bozkatua dela ordaina, ez duela herri batek ere errefusatu eta herri elkargoak ere onartu duela.

Michelena jaunak jakinarazten du herri handi batzuek errefusatu dutela. Diru-bilketa publikoak apaltzen doaz, ordain hau pribilegio bat da, eta pribilegioak gelditzeko ordua da.

Auzapez jaunak jakinarazten du herriak eraman lan harreman positiboetan sartzen dela finantza publikoen zuzendaritzarekikoa. Aurrekontu egozpenei buruzko argibideak eskatzen zaizkio usu. Herri elkargoko herri guzientzat, ordain horren ematea normala eta justifikatua da. Estatuak berak argitu beharko luke hori. Sarako zahar etxe publikoarentzat, diruzaina kontularia dela zehazten du eta aurrekontu galderak tratatzen dituela.

Auzapez jaunak ordaina mantendua izan dadin nahi du.

Auzapezak bozkatzea proposatzen du.

Diruzaintzako kontulariari eman beharreko aholku-ordaina gehiengoan onartua da.

Kontra bozkatu dutenak : Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aiçaguerre anderea eta Michelena jauna.

Abstenitu direnak : Lespade anderea, Etchelecu eta Lassus jaunak.

Lespade andereak ahalordea duenez, boz batentzat edo birentzat abstenitzen denez galdegiten dio auzapezak.

Lespade andereak erantzuten dio bera bakarrik abstenitzen dela.

## **10 – Alokairuen prezioak.**

Auzapez jaunak herriko Kontseilua gonbidatzen du Laborde etxeko 1. eta 2. estaieko 52m<sup>2</sup>-ko T3 motako bi apartamentuen alokairuaren finkatzea erabakitzen. Lanak maiatzaren burutuko dira. Apartamentu bakoitzarentzat, 420 €/hilabeteka-ko abkairua proposatzen da, 2015eko maiatzaren 1etik goiti.

ORPI agentziari estimatze bat eskatu zaio. 1. estaieko alokairua 410 € eta 450 € artean finkatu du, eta 2. estaiekoa 400 € eta 430 € artean. Apartamentu bakoitzarentzat proposatua den 420 €-ko alokairua egokia da orduan.

Auzapez jaunak prezio hau erabakitzea galdegiten die bere lankideei, eta Kontseilua ados baldin bada, puntu bat gehitzeko baimena ere galdegiten die : etxe beheko lokalaren alokairuaren prezioa. Puntu hau ez zen gai ordenetan sartzen. Auzapezak jakinarazten du bi bozka ezberdin izanen direla.

Auzapez jaunak 420 €-tan/hilabeteka proposatua den 1. eta 2. estaieko bi apartamentuen alokairua erabakitzea galdegiten dio herriko Kontseiluari, heldu den maiatzaren 1etik goiti.

Aiçaguerre andereak jakinarazten du osasun eta bainu etxearen ideia bazterrera utzi dela.

Auzapez jaunak erantzuten dio ez dela herriko etxea ideia hori bazterrera uzten duena.

Aiçaguerre andereak galegiten dio erakundeak direnez.

Auzapezak baietz erantzuten dio. Joan den iraila bukera arteko epea eman zitzaizen, osasun eta bainu etxearen ideia interesgarria zelako Kanboko herriarentzat, zerbitzu bateratuak instalatzeko eta formakuntza egokiak segitzeko parada emateko, erakundeek, zahar etxeek, komunikazioa eta Eskualdeko Osasun Agentziak enplegatu pertsona batekin. Lehendakariari zein lehendakariordeari eskatu zaie erakundeen zuzendariak kontsultatzea proiektu komun hori abiatu nahi zutenez jakiteko. Segidarik ez denez izan, gehiengoan den taldeak erabaki du apartamentu horren alokatzea.

Aiçaguerre andereak ohartarazten du herriak diru languntzak ukan dituela herriko gorentasun zentroarengandik, eta aurreikusi proiektuarentzat ez direnez ezarriko, diru laguntza horiek itzuli beharko ditugunez galdegiten du.

Auzapez jaunak ezetz erantzuten du, epea errespetatu behar delako. Etxe hau hetsirik egon da luzaz, proiektu horren gauzatzeko.

Aiçaguerre andereak penagarri atxematen du, dinamika bat eramanen zuen proiektu polita izanen zela uste baitu.

Auzapezak jakinarazten du bere taldeak damu duela eta triste dela aukera hori galtzea. Proiektua abiatu eta finantzamenduak atxeman zituen herriak, baina argi da lehen interesatuek ez dutela proiektu honi segidarik ematen.

Bi apartamentuak 420 €-tan/hilabeteka bozkatzea proposatzen du auzapezak. Aho batez onartua.

Ondotik, puntu gehigarria idaztea proposatzen du auzapezak : harrera bulego bat, komunak eta bilkura gela bat dituen etxe beheko lokalaren alokatzea. ORPI agentziari estimatze bat egitea galdegin zaio, 490 € eta 520 € arteko alokairua proposatzen du lokal profesional horrentzat. 500 €-tan alokatzea proposatzen du auzapezak. Helburua prezio bat finkatzea dela zehazten du, merkataritza-alokantzei buruzko hausnarketa bat bidean baita. Merkataritza-alokantza bat kontratatu gabe, aldi bateko laneko enpresa bati edo abiatzen den lanbide liberal bati alokatzeko parada bada ere. Hiru edo sei hilabetez alokatzeko parada balitz, kontuan hartu beharko litzateke, lekua hetsirik egon ez dadin. Herriko Kontseiluak du alokairuaren prezioa finkatu behar.

Michelena jaunak galdegiten du hausnarketarik eraman denez etxe beheko zati bat elkarteei zuzentzeko edota bilkura gela bat egiteko, Kanboko gelak bete-beteak direla ikusirik.

Auzapezak erantzuten dio bilkura gelak jadanik badirela herrian. Nicola Le Bars-ek ordutegia zaintzen du eta eskaera guzietan baikorki erantzun die beti. Geroari begira, bilkura gela proiektu bat abiatuko litzateke Bordart etorbidean, baina ez da gehiegi egin behar. Zerbitzu publiko baten instalazioa ere aipatu da.

Aiçaguerre andereak galdegiten du elbarrituentzat lokal egokitua denez.

Auzapezak erantzuten dio gibeletik pasatuz posible dela, aitzinean maila ttipi bat dagoela baina elbarrituentzat antolatzen eta egokitzen ahal dela.

Herriko Kontseilua puntu hau gai ordenetan sartzeko ados denez galdegiten du auzapezak, eta ahobatezkotasuna behar dela zehazten du, bestela puntua kenduko da.

Herriko Kontseiluak puntu gehigarri hau gai ordenetan idaztea aho batez onartzen du.

Auzapezak herriko Kontseiluari proposatzen dio alokairua 520 €-tan/hilabeteka finkatzea. Aho batez onartua.

## **11 – Langileak : lanbide aldaketa.**

Zerbitzuen zuzendari nagusiak proposaturik, herriko Kontseiluak ondoko lanbideen aldaketa aho batez onartzen du :

- 2. mailako hiru axuant teknikoren lanbideak 1. mailako axuant tekniko gisa, 2015/04/01etik goiti,
- 1. mailako axuant tekniko nagusi baten lanbidea agente nagusi gisa, 2015/04/01etik goiti,
- 1. mailako axuant tekniko baten lanbidea 2. mailako axuant tekniko nagusi gisa, 2015/04/01etik goiti,
- 2. mailako axuant tekniko baten lanbidea 1. mailako axuant tekniko gisa, 2015/06/15etik goiti,
- ingeniari baten lanbidea ingeniari nagusi gisa, 2015/07/01etik goiti.

## **12 – Osasunbidea eta segurtasuna : hautetsi erreferente baten izendapena.**

Osasunbidea eta segurtasun batzordearen parte izateko hautetsi baten izendapenik ez dela zehatzen du auzapezak, hau jadanik eginga baita. Helburua da osasun-segurtasun erreferente bat izendatzea. Paregabeko dokumentua du herriak, eta afera hau segitzen duen agentea Patrick Elizalde da. Azken honek hautetsi erreferente bat behar du. Orain arte Henri Janot zen dossier honetaz arduratzen zena.

Osasun-segurtasun erreferente gisa Camille Jenvrin izendatzea proposatzen du auzapezak herriko Kontseiluari, Patrick Elizaldekin dossier honetan eta prebentzio ekintza guzietan jarduteko.

Beste hautagairik ba ote denez galdegiten du auzapezak.

Bacardatz jaunak bere kandidatura aurkezten du.

Herriko Kontseiluak isilpean bozkatu nahi duenez galdegiten du auzapezak.

Herriko Kontseiluak isilpean ez bozkatzearabakitzen du aho batez.

Camille Jenvrin jaunak 25 boz lortzen ditu.

Philippe Bacardatz jaunak 4.

Camille Jenvrin izendatua da osasun-segurtasun erreferente gisa.

### **13 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Lurralde elkargoen kode orokorreko 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen zein 2014eko apirilaren 7an herriko Kontseiluak egin deliberazioaren arabera, auzapezak ondoko erabakiak jakinarazten ditu :

a) lehenetsunez erosteko eskubideari dagozkion erabaki negatiboak, 2014eko abenduaren 26tik 2015eko otsailaren 6ra :

- Lur zati : 2
- Etxe : 0
- Apartamentu : 4

b) hilobi kontzesioen eskuratzeari dagozkion erabakiak 2014eko abenduaren 26tik 2015eko otsailaren 6ra :

- 15 urteko kontzesioen erostea : 0
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobiak) : 0
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ columbarium delakoak) : 1
- 15 urteko kontzesioen eraberritzea : 1
- 30 urteko kontzesioen eraberritzea (hilobak) : 1
- Dohainiko lur zatien berreskuratzea : 0

### **14 – Gainerako galderak.**

- Kanboko herriari zuzendu bi bereizketaren berri ematen dio auzapezak herriko Kontseiluari :
- Berrizta daitekeen bost urterako « lorategi nabarmena » labela Arnagako etxearentzat. 2015eko urtarrilaren 5ean Akitaniako Prefetak hartu erabakia, Arnagako lorategietan herriaren inplikazioaren onarpena ;
- 2015eko urtarrilaren 28an lehen ministroak egin dekretua, Kanboko herria « turismo estazio gisa » sailkatzeko. Ekonomia, industria eta numerikoaren ministroa den Emmanuel Macron jauna eta merkataritza, eskulangintza, ekonomia sozial eta solidarioaren kontsumoaren estatu idazkaria den Carole Delga-ren gutun bat jaso duela zehazten du auzapezak. Gutun honetan, gure lurraldea gorentasuneko desmartxa batean sartzen dela zehazten da, herria lankideekin zein erakundeekin eragile publiko eta pribatuekin mobilizatu dela desmartxa hau burutzeko, eta titulu horren lortzeagatik goresmenak adierazten dira. Gorentasun ardatz hori mantentzen du herriak orduan, Frantzian zein Pirinio Atlantikoetan estazio guti sailkatuak direlarik.
- Auzapezak oroitarazten du herriko Kontseilua Laborde etxea bisitatzera gonbidatua dela heldu den otsailaren 21ean, 9etan, hitzordua tokian berean.
- Martxoaren 16an, astelehenarekin : mediatekaren aurkezpena tokian berean.

- Martxoaren 9an, gaueko 8etan: herriko Kontseiluaren bilkura kontu administratiboen bozkatzeko. Martxoaren 4ean 18:30tan, Christian Devèzen lehendakaritzapean, finantzen batzordearen bilkura izanen da.
- 2015eko apirilaren 13an, gaueko 8etan: herriko Kontseiluaren bilkura lehen aurrekontuen bozkatzeko. Martxoaren 31an, 18:30tan, finantzen batzordearen bilkura izanen da.
- 2015eko agorrilaren 9an, euskal kirolen aste nagusiaren idekidura izanen da Kanbon. Goizeko 10:30tan errebota partida bat izanen da seniorrekin, eta bazkariaren ondotik, esku huskako finalak iraganen dira seniorrekin ere bai. Auzapezak jakinarazten du Lilou Echeverria federazioaren lehendakaria ikusi duela, eta errebota finala aitzin 2. frontoi horren estreinaldia egitea proposatu diola, euskal pilotaren nazioarteko federazioaren lehendakariarekin agian. Estreinaldia goizeko 10etan eginen litzateke. Aste nagusi horren ospatzeko, goizeko 9etan meza bat egitea proposatuko dio apezari.
- Peio Etchelecu jaunak jakinarazten du heldu den uztailaren 6tik 10era, euskarazko futbol egonaldi bat izanen dela herrian, 7 urtetik 13urterainoko haur euskaldun eta ez euskladunei idekia. Donostiako Errealak antolatu egonaldi hau 65 haurreri idekia da. David Zurutuza Errealako jokalaria eramanen du egonaldia. Kanboko klubarekin ere antolatua da. Kanboko klubari baita Seaskari emanen diete antolatzaileek. Egonaldi horren gauzatzeko, herriak kirol ekipamenduak prestatuko ditu. Auzapezak zehazten du Kanboko klubari 500 €-ko zama emanen zaiola, eta egonaldi horren lehen aldia denez eta Errealarekiko partaidetza bat abiatzeko asmoz, kirol ekipamenduak urririk uztea erabaki du herriak. Ekimena berriz egiten balitz, baldintzak aldatuko lirateke, izen emate eta karguen arabera erabakiko da. Esperientzia eta partaidetza honen ongi abiatzeko, herriak bere instalazioak Errealaren esku uzten ditu urririk.
- Mikel Erramouspé St Michel kolegioko zuzendariak aholkaturik, ikasleen burasoen elkarteak herriko etxeari idatzi dio Oskorri taldearen kontzertu bat antolatzeko ideia interesgarria litzaiokeenez jakiteko. Talde horrek toki bat bilatzen du bere azken kontzertua emateko. Gehiengoak kiroldegia elkartearen esku uztea erabaki du, eta kontzertua 2015eko urriaren 18an litzateke, St Michel kolegioko ikasleen burasoen elkarteak antolaturik.
- Aïçaguerre andereak Pontacq andereari galdegiten dio, Arnagari eta bere adigailuekiko bisitei begira zergatik Arnagako webgunean adigailuekin bisitatzeko aukera ez den zehaztua, 8 €-ko bisita soilik zehaztua delarik (adigailurik gabeko bisita).

Pontacq andereak erantzuten dio Azarete jauna gelditzen denez, kontserbatzaileak lorategien bisitak antolatu dituela adigailuekin. Etxearen bisitentzat, Labat andereak berriz entseatu nahi luke.

Aïçaguerre andereak ohartarazten du inbertsio honek 32 000 € kostatu duela, eta entseatzeko kario ateratzen dela.



Pontacq andereak dio kontserbatzaileak ekipamendu hau berriz ezarri nahi duela etxean, baina gidariak ekipamenduaren erabilpenarekin dudakorrak direla.

Aiçaguerre andereak galdegiten du lorategien bisitak noiz egingen diren. Pantxo Azareterekin bi bisita ziren astean.

Pontacq andereak dio bisita ugari antolatuko direla astean.

Auzapezak dio eztabaidagarria izan daitekeela ekipamendu horren kostua eta erabilpen eza kontuan hartzen baditugu, baina pentsatzen du tresna interesgarria dela Arnagarentzat. Dispositibo berri hau bisiten sisteman sartu eta nola balorizatzen ahal den ikusi behar da. Pontacq andereari galdegiten dio kontserbatzailearekin tresna horren erabilpena hobetzeko neurriak finkatzea. Debaldekoa dirudenez, museoarentzat beste gasturik ez dela izanen jakin beharko du kontserbatzaileak. Museo anitzetan erabiltzen den tresna baliagarria dela segur da, ez da arrazoinik orduan Arnagan ez erabiltzeko. Aditze edota antolatze arazo bat da azkenean, eta gainditu beharko litzateke.

- Hiriart-Urruty andereak kultura eta kirolari buruzko informazio bat ematen du : heldu den martxoaren 20an, ostiralarekin, Korrika Kanbotik pasatuko da goizeko 7etan. Hautetsi guziak parte hartzera gonbidatuak dira.  
Auzapezak zehazten dio bilkuren gai ordenetan idatzia dela. Korrika aitzin, kontseilariei oroitarazten die garrantzitsua dela parte hartzea eta berak ere pertsonalki parte hartuko duela.
- Aiçaguerre andereak jakinarazten du kabareta gualdia izanen dela AEK-ren alde, otsailaren 20an, Gaztetxean.

Bilkura 22 :40tan bukatu da.